



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Gizarte Ekintzak kontzentretan dau Aldundiak 2015erako daukan gastu erabilgarriaren ia %43a

Bilbon, 2014ko azaroaren 10ean.

2015eko Bizkaiko Aurrekontuen proiektuak aurrera jarraitu dau gaur goizean bere informazio prozesuagaz Batzar Nagusietan. Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako diputatu andreak zabaldu dau Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aurreko agerraldien txandea, bere sailak datorren urtean, Lurraldeko gizarte zerbitzu sarearen beharraz jarraitzeko, eukiko dauen 490,7 milioiko aurrekontua (aurreko urtean baino %5,3 gehiago) zehazteko.

Kopuru hori, Foru Aldundiak datorren urterako daukan gastu erabilgarri osoaren ia %43a da eta, diputatu andrearen berbetan, argi eta garbi ixten dau “Aldundiaren lehentasuna pertsonen alde behar egitea dala”, “egoera txarrean” dagozanen alde, batez be. Hamar eurotik zazpi pertsona nagusiei zuzendutako programetan, mendekotasunaren balorazioan, prestazioan eta dirulaguntzetan eta urritasunaren arretan gastauko dira.

Gastuaren zati nagusia jasoko dauen atala pertsona nagusiei zuzendutakoa izango da. Gizarte Ekintzako sailak, aurrekontuaren herena baino gehiago –168,7 milioi euro–pertsona nagusien zainketara bideratuko dau. “2.700 plaza kontzertau” eskiniko ditu –une honetan lurraldeak “2.543” ditu– Bizkaiko egoitzetan, eta horrek 80,4 milioi euroko inbertsinoa eskatuko dau.

Pilar Ardanzak zuzentzen dauen sailaren beste esfortzu nagusietako bat mendekotasunaren prestazioetara eta laguntzetara bideratuko da. Atal horretara 105 milioi euro bideratuko dira, sailak daukan aurrekontuaren “%20 baino zeozer gehiago”. Arlo horretan, Foru Aldundiak Mendekotasunari buruzko Legea bere haserako egutegian aurrera erotearen aldeko apustua egin dau, “I. graduako, 1. mailako” mendekotasuna daukien pertsonen “2015eko uztailetik aurrera” jaso ahal daien prestazio hori. Ardanzak azaldu dituan kalkuluak kontuan izanda, “5.000 pertsona inguruk” jasoko ditue neurri horren onurak.

Atal horretan, Ardanzak Bizitza Independenteari Laguntzeko Zerbitzu Esperimentala be aitatu dau. Aurton hasi da martxan, eta 2015ean 500.000 euroko aurrekontua izatea aurreikusten dau.

Administrazio Orokorreko programan dago aurrekontuen beste parte nagusietako bat: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ-IFAS) eta Bizkaiko Tutoretza Erakundearen (BTE-ITB) finantziarioa. Bien artean 105 euroko aurrekontua daukie, hau da, lehenengoaren kasuan aurrekontuak %1,19ko igoerea euki dau, eta bigarrean, barriz, %10,97koa. GUFÉ-ren kasuan, sailak 2,1 milioi euro erreserbauko ditu aplikazio informatikoa aldatzeko.

Horrez gain, Aldundiak, urritasuna daukien pertsonen arreta emoteko daukazan zerbitzuak jarraituko dau. Pertsona horreei arreta emoteko zentroen –egoitzakoak eta egoitzakoak ez diranak– sareak 2.603 plaza baino gehiago izango ditu, eta 65,4 milioi euroko aurrekontua eukiko dau, %7,34 haziz. Arlo horretan, azpimarratzekoak dira Durangon zabalduko dan eguneko zentroa, portaera arazoak eta urritasuna daukien pertsonentzako baliabidea zabaltzea eta buruko gaixotasuna daukien pertsonentzako bederatzi plaza.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzarretako taldeen aurrean aurkeztutako txostenean, diputatu andreak gizarte inklusino programek %4,3ko hazkundea izan dabela azpimarratu dau, eta programa horreetara 17,4 milioi euro bideratuko dirala. Umeei zuzendutako programen aurrekontuek gora egingo dabe, 6,4 milioi euroraino, aurreko urtean baino 580.771 euro gehiago, eta emakumeei eta familiari bideratutako partidea 6,3 milioi eurokoa izango da.

Balorazinoaren eta orientazinoaren arloan, Ardanzak adierazo dauenez, bere sailak 3.149.613 euro erreserbauko ditu, %9,4 gehiago. 270.000 euro gordeko dira Uribitarten lokal barria egokitzeko, Marcelino Oreja kaleko egoitzak barriztetako beharrak egiten diran bitartean. EH Bilduk egindako galderei erantzunez, Ardanzak adierazo dau aurreikuspenak kontuan izanda 2015ean bete egingo dala mendekotasunari buruzko balorazinoa 60 eguneko batez besteko epean egiteko helburua. Epe hori “76,24 egunekoa” izan zan 2013an, eta 2014ko lehenengo hiruhilekoan, barriz, “69,55 egunekoa” izan da.

Batzarretako taldeei erantzunez, Ardanzak adierazo dau Foru Aldundiak aurrera jarraitzen dauela ekimen pribaduaren bitartez Trapagan egoitza barria eregiteko konpromisoagaz, 50 urtetarako emakidaren bitartez. Dana dala, ez da beharrezkoa izan helburu horretara aurrekontuko inolako partidarik bideratzea. Bilbo Zaharreko eta Ermuko “bejetatiboen unidateetarako” aurrekontua murrizteari jagokonez, erabiltzaileen eskaria “ez dala izan hasera batean aurreikusten zan besteko garrantzitsua” adierazo dau diputatu andreak, familiek pertsona horreek euren etxeetatik gertu egotea eskatzen dabelako. Euren etxebizitzetatik gertu dagozan zentroetara hurbiltzea erabagi da, unidate hori zentro bi horreetan zentralizau beharrean.

Ardanzak iragarri dauenez, aurreikuspenak beteten badira, abenduan emongo jako hasera familiako harrera profesionalari buruzko programa pilotuari. 2015. urterako aurrekontua 197.516 eurokoa izango da.

EH Bildu taldeari erantzunez, diputatu andreak, euren etxetik kanporatuak izan diran edo horretarako arriskuan dagozan pertsonentzat, inolako partidarik ez dala aurreikusi adierazo dau, bere saila gizarte bazterketa egoeran dagozan pertsonen arduratzen dalako, eta euren etxetik kanporatutako pertsonak ez dirala zertan egoera horretan egon behar.

Egoitzetako prezio publikoen bitartez jasoten diran diru-sarrerei jagokonez, Ardanzak “diru-sarrera gitxiago” itxaroten dabela adierazo dau, familien egoera ekonomikoa “txarragoa” dalako. Aurrekontuetan 66,8 milioi euroko kopurua aurreikusi da. 2015ean “3 milioi euroko” murrizketea itxaroten da, 2014 honetako irailerako jatsiera hori 2 milioikoa izan dalako dagoaneko.

71 MILIOI EURO INGURUMENAGAZ ERLAZIONAUTAKO KONPROMISOAK BETETEKO

Ingurumeneko sailak 71 milioi euroko aurrekontua eukiko dau datorren urtean, Iosu Madariagak zuzentzen dauen saileko 4 programak aurrera eroan ahal izateko. 2015ean 44,5 milioi euro bideratuko dira inbertsinoetara. Berrogei milioi Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren aurrekontuetan sartuko dira, ur hornidura eta saneamendurako azpiegitura barriak egiteko “15 proiektu” aurrera eroan ahal izateko. Kopuru horri, Karrantzan ur hornidurarako obrak egitera bideratuko diran “1,23 milioiak” gehitu behar jakoz, baltsaren eta araztegiaren arteko hodiatarako batez be, udalerrri hori ez dagoalako Partzuergoaren barruan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Horrez gain, sailak beste 11 milioi aurreikusten ditu espazio naturalen kudeaketarako; 2,5 milioi euro Parke Naturaletarako; eta 6,1 milioi hondartzen kudeaketarako. Kosta Demarkazioagaz alkarlanean, Ingurumeneko Sailak La Arenako hondartza birgaitzeko proiektuaren lehenengo faseari hasera emongo deitso. Beste “60.000 euro” bideratuko dira Bizkaiko hondartzetan hainbat azpiegitura konpontzeko.

Barrikuntza nagusien artean, Madariagak, elikagaiak neurri barik gastatea saihestera bideratutako ekimen barrizalea azpimarratu dau. 100.000 euroren truke Elikagaien Bankuagaz sinatutako hitzarmenaren bitartez, elikagaiak barriro erabiltea bultzatuko da, Mercabilbaon eta beste 165 merkataritza saltokitan batuz. “Lehentasunezko” gaietako bat 5. edukiontzia jartea izango da. Aurtongo 800.000 euroko aurrekontutik, 2015ean izango dauen 1.090.000 euroko aurrekontura pasauko da.

LIFE+ programaren barruan aurkeztu diran proiektuen barruan, datorren urtean bisoi europarra babesteko eta espezie inbaditzaileak desagertuarazoteko partidak jasoko dira. 2015ean errealidade bilakatuko dira 100.000 euroko inbertsinoa eskatuko dauen Meatzaldeko Biotopoaren interpretazinarako zentroa eta puntu hidro-meteorologikoen sare informatizau barriaren instalazinoa.

NEKAZARITZAKO SAILAK BASERRITAR GAZTEEN ALDEKO APUSTUA EGINGO DAU

Foru Aldundiko nekazaritzako sailari jagokonez, 30,9 milioi euroko aurrekontua eukiko dau 2015. urterako, aurreko ekitaldian baino %1,18 gehiago. Irene Pardo nekazaritzako diputatu andreak itxi ditu lurraldeko kontuei buruzko gaurko informazio batzordeak, ondoren adierazoten diran ardatzen aldeko apustua egiten daberen kontuak azalduz: nekazaritza-ingurumeneko neurrien finkapena; gazteei emon beharreko laguntzea, lehenengo instalazinoa sustatuz, inbertsino barrien edo Lurren Bankuaren bitartez; enplegu gehiago eragingo daberen ustiapenei eta ekoizpenerako inbertsinoei emongo jaken laguntzea; eta animalien ongizaterako neurriei laguntzea.

Nekazaritzako sailak finkatu egingo ditu nekazaritzako ustiapenek jasoko dituen laguntzak. 11,4 milioi eurogaz lagunduko ditu Bizkaiko ustiapenen errentak. Ganera, 8,9 milioi ekoizpenerako inbertsinoetara bideratuko dira, aurrekontu osoaren %29. Beste alde batetik, animalien ongizaterako neurrien barruan, 300.000 euroko kreditu deialdia eukiko dauen programa barria jarriko da martxan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Acción Social concentra casi el 43% del gasto disponible de la Diputación para 2015

Bilbao, a 10 de noviembre de 2014.

El proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2015 ha continuado esta mañana su proceso informativo en las Juntas Generales. La diputada de Acción Social, Pilar Ardanza, ha abierto el turno de comparecencias en la Comisión de Economía y Hacienda, para detallar los 490,7 millones de euros de presupuesto (un 5,3% más) que prevé contar su departamento el año próximo para mantener la red de servicios sociales del Territorio.

La cuantía supone alcanzar casi el 43% del gasto disponible de la Diputación para el año próximo y demuestra ser –según la diputada– “un fiel reflejo de la prioridad de trabajar para las personas” especialmente para “las más vulnerables”. Siete de cada diez euros se gastarán en los programas destinados a personas mayores, valoración, prestaciones y subvenciones de la dependencia, y en atención a la discapacidad.

El capítulo que absorberá un mayor gasto será el referido a las personas mayores. En este ámbito, Acción Social destinará más de un tercio de su presupuesto –168,7 millones de euros– al cuidado de estas personas. Ofertará “2.700 plazas concertadas” –actualmente el territorio dispone de “2.543”– en las residencias de Bizkaia lo que acarreará una inversión de 80,4 millones de euros.

Otro de los grandes esfuerzos del departamento que dirige Pilar Ardanza, será el destinado a cubrir las prestaciones y subvenciones a la dependencia, capítulo al que se reservan 105 millones de euros, “algo más del 20%” del disponible departamental. En este ámbito, la Diputación Foral apuesta por desarrollar la Ley de Dependencia en su calendario inicial para que las personas con dependencia “Grado I, nivel 1”, puedan beneficiarse de esta prestación “a partir de julio de 2015”. Ardanza calcula que esta medida beneficiará a “unas 5.000 personas”.

En este capítulo, Ardanza se ha detenido también en el Servicio Experimental de Apoyo a la Vida Independiente que inició su puesta en marcha este año y que en 2015 prevé contar con una dotación presupuestaria de 500.000 euros.

En el programa de Administración General, se encuentra otro de los grandes lotes presupuestarios: la financiación del Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS) y del Instituto Tutelar de Bizkaia (ITB). Entre los dos se llevan 105 millones de euros lo que supone un incremento presupuestario de 1,19%, en el caso del primero, y de 10,97% en el ITB. En el IFAS, el departamento reservará 2,1 millones para modificar el aplicativo informático.

Asimismo, la Diputación mantendrá los servicios existentes para atender a las personas con discapacidad. La red de centros –residenciales y no residenciales– para atender a estas personas completará más de 2.603 plazas y sumará un presupuesto de 65,4 millones de euros, creciendo un 7,34%. Aquí, destaca la apertura del centro de día de Durango, la apertura de un recurso para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

personas con trastornos de comportamiento y discapacidad, y nuevas plazas para personas con enfermedad mental.

En la memoria presentada a los grupos junteros, la diputada ha destacado también el incremento en un 4,3% de los programas de inclusión social que supondrán un coste de 17,4 millones de euros. Destaca el aumento de los programas de Infancia con una dotación presupuestaria de 6,4 millones, con un incremento neto de 580.771 euros, y la partida destinada a mujer y familia, en los que se reservan 6,3 millones.

En el capítulo de la valoración y orientación, Ardanza ha señalado que su departamento reserva 3.149.613 euros lo que supone un 9,4% más. Guardarán 270.000 euros para acondicionar un nuevo local en Uribitarte, mientras se ejecutan los trabajos de reforma de las dependencias de Marcelino Oreja. A pregunta de EH Bildu, Ardanza ha señalado que en 2015 esperan cumplir con los 60 días de media para hacer la valoración de dependencia, que en 2013 se situó en los “76,24 días” y en el primer trimestre de 2014 en “69,55”.

En respuesta a los grupos junteros, Ardanza ha señalado que la Diputación continúa con su compromiso por que se construya con iniciativa privada una nueva residencia en Trapagaran mediante una concesión a 50 años, si bien no ha sido necesario consignar ninguna partida presupuestaria para tal fin. En cuanto a la reducción de presupuesto para las “unidades de vegetativos” de los centros de Bilbo Zaharra y Ermua, la diputada ha manifestado que la demanda de usuarios “no está siendo tan importante” como se preveía en un inicio porque las familias demandan que estas personas estén cerca de sus domicilios. Se ha optado por acercarlas a centros próximos de sus lugares de residencia, en lugar de centralizar esta unidad en estos dos centros.

Ardanza ha señalado que, en diciembre, esperan arrancar con el programa piloto del acogimiento familiar profesionalizado. El presupuesto para 2015 será de 197.516 euros.

Respondiendo a EH Bildu, la diputada ha señalado que no está contemplada partida alguna para personas desahuciadas o en riesgo de desahucio, ya que en su departamento se ocupan de las que están en riesgo de exclusión social, y las personas desahuciadas no tienen por qué formar parte de este colectivo.

En el capítulo de ingresos por los precios públicos de las residencias, Ardanza ha señalado que esperan “menos ingresos” como consecuencia del “empeoramiento” económico de las familias. La cifra presupuestada se sitúa en los 66,8 millones de euros. Esperan una disminución de “3 millones de euros” para 2015 ya que a septiembre de 2014 este decenso alcanzaba ya los 2 millones.

71 MILLONES PARA CUMPLIR LOS COMPROMISOS MEDIOAMBIENTALES

El departamento de Medio Ambiente contará el año próximo con 71 millones de euros para desarrollar los 4 programas del área que dirige Iosu Madariaga. En 2015, las inversiones se llevarán 44,5 millones de euros. Cuarenta millones se inyectarán en los presupuestos del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia para desarrollar “15 proyectos” para nuevas infraestructuras de abastecimiento y saneamiento de aguas, a los que habrá que sumar “1,23 millones” para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

obras de abastecimiento en Karrantza, principalmente para conducciones de agua entre la balsa y la depuradora, al no estar adherido este municipio al Consorcio.

Ademas, el departamento contempla otros 11 millones para la gestión de espacios naturales; 2,5 millones de euros para los Parques Naturales; y 6,1 millones para la gestión de las playas. En colaboración con Demarcación de Costas, Medio Ambiente iniciará la primera fase del proyecto de regeneración de la playa de La Arena con una aportación foral de 190.000 euros. Se destinarán otros “60.000 euros” para arreglar diversas infraestructuras en los arenales vizcaínos.

Entre las principales novedades, Madariaga ha destacado una iniciativa novedosa para evitar el despilfarro de alimentos. Mediante un convenio con el Banco de Alimentos, por un importe de 100.000 euros, se incrementará la reutilización de alimentos a través de la recogida en Mercabilbao y en 165 establecimientos comerciales. Un tema “prioritario” será la colocación del 5º contenedor. Se pasa de un presupuesto de 800.000 euros a 1.090.000 euros en 2015.

Dentro de los proyectos presentados al programa LIFE+, el año próximo incluirán partidas para la protección del visón europeo y para la erradicación de especies invasoras. En 2015 será una realidad el centro de interpretación del Biotopo de Meatzalde que supondrá una inversión de 100.000 euros y la instalación de una nueva red informatizada de puntos hidrometeorológicos.

AGRICULTURA APUESTA POR LOS JÓVENES BASERRITARRAS

Por su parte, el Departamento foral de Agricultura dispondrá de 30,9 millones de euros para hacer frente al 2015, un aumento del 1,18% con respecto al ejercicio anterior. La Diputada, Irene Pardo, cerraba las comisiones informativas de las cuentas del territorio de hoy explicando unas cuentas que apuestan por cinco ejes: la consolidación de las medidas agroambientales; el apoyo a los jóvenes, bien mediante el fomento de la primera instalación, nuevas inversiones o a través del Banco de Tierras; el apoyo a las explotaciones y a las inversiones productivas que supongan un aumento del empleo; y el apoyo a medidas de bienestar animal.

Agricultura consolidará los apoyos que reciben las explotaciones agrarias. Apoyará con 11,4 millones de euros a las rentas de las explotaciones vizcaínas. Por su parte, 8,9 millones se destinarán a inversiones productivas, el 29% del presupuesto disponible. Por su parte, dentro de las medidas de bienestar animal, se pone en marcha un nuevo programa que tendrá una convocatoria de 300.000 euros de crédito.